



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

GERNIKAKO BATZAR ETXEAK, BISITAK ERREGULETAKO ETA EUKIEREA KONTROLETAKO DOBAKO SARRERA-SISTEMA DIGITALA ESTREINAU DAU

- **Batzar Nagusien egoitzaren barrualdea ezagutu gura dabenek sarrera digitala eskuratu beharko dabe jjggbizkaia.eus webgune instituzionalean edo Bizkaiko Batzarretako sarreran jarritako totem batean.**
- **Gaurtik, astelehenetik, aurrera, erreserbak online egin daitezke, eta bihar, martitzena, uztailaren 20a, beharrezkoa izango da sarrerea eukitea Gernikako Batzar Etxera sartzeko.**
- **Bizkaiko Batzar Nagusien eraikin barruko lekuak ezagutzeak dobakoa izaten jarraituko dau; dana dala lorategi-ingurua tiket hori barik bisitatu ahal izango da.**
- **Pandemia eta osasun-neurriak dirala eta, orain arte Batzar Etxearen barruko guneak itxi egin behar izan dira, baina ez Gernikako Arbolea dagon kanpoko eremua.**

(Gernikan, 2021eko garagarriaren 19an). Bizkaiko Batzar Nagusiek, Gernikako Batzar Etxea bisitetako sarbidea online kontroletako sistema bat instalatu dabe. Gaurtik aurrera erreserbak online egin daitezke. Bihartik aurrera Batzar Nagusietako egoitza bisitetea erabagiten dabenek QR kodea daukan online sarrera bat eskuratu beharko dabe, ezelango kostu barik, Batzar Etxeko gune interesgarrietara sartzeko. Helburua, lurraldeko arkitektura-moltso bisitauenetako bat dan foru egoitzaren barruan personen joan-etorria antolatzea eta eukiera mugatzea da.

Sarbide-sistema elektroniko barriak Bizkaiko Batzarretara sartzen diran persona kopurua eta barruan egiten dabenek denporea kontrolauko ditu. Bisitariak gehienez 45 minutu izango ditue bisitea egiteko. Modu berean, orduko 22 lagunentzako eukiera mugea egongo da, eta noranzko bakarreko ibilbide batek ordenauko dau personen joan-etorria foru egoitzaren barruan; ibilbide hori osoko bilkuren aretoan hasi eta Gernikako Arbolan amaituko da, Batzar Nagusietako beste instalazino batzuetatik igaro ostean (Beiratearen Aretoa, liburutegia, lehendakariaren bulegoa...).

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakariak aurkeztu dau gaur goizean tiketing sistema, eta, azpimarratu dauenez, pandemiak foru egoitzako gune batzuk ixtera behartu dau, osasun errazoiak dirala eta. Pandemia indarrean egon dan denpora hori baliagarria izan da sarbide-formula bat diseinetako, prestatako eta instalaletako, *“Bizkaiko txoko bisitauenetako bat ezagutzera hurbiltzen diran personen kontrol handiagoa izateko. Bizkaiko*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hirugarren esparru historiko-kultural bisitauena da, Guggenheim eta Arte Eder museoen atzetik. Bisitarien erositutasun eta segurtasun plusa izango da.”

Sartzeko tiketa Batzar Nagusien webgunearen bidez (<https://jggbizkaia.eus/es/gernika/solicitar-cita>) eskuratu ahal izango da, “home” atariko atal nabarmen batean edo foru-erakinaren sarreran bertan dagon totem batean. Batzar Etxearen barruan be informazio-panelak eta QR kodeak instalatu dira, aretoen eta ondare-elementuen azalpen zehatzakaz. Bost hizkuntzatan kontsultatu ahal izango dira (euskeraz, gaztelaniaz, ingelesez, frantsesez eta alemanez).

Sistemak Gernikara gerturatzeko eguna eta ordua aukeratzeko aukerea emongo deitso bisitariari, Datuak Babesteko Legeak ezarten dauen moduan tratauko diran datu pertsonal batzuk sartu ostean. Banakako edo taldeko sarrerea, paperean inprimiduta edo gailu mobikorr batean deskargata, daukien pertsonak, aukeraturako orduko lehenengo 15 minutuetan joan beharko dabe hitzordura, sartu gura badabe. Joaten ez badira, sarrera libre geratuko da beste pertsona bat sartu daiten.

Gernikako Batzar Etxea Bizkaiko eraikin bisitauenetako bat da. 2019an, erregistro osoa egin zan azkenengo urtean, 162.675 pertsonak bisitatu eben Euskadiko demokraziaren eta askatasunen sinboloari babesa emoten deitso Gernikako Arbolea, hau da, aurreko urtean baino % 7,2 gehiago. Bisitarien heren bat atzeritarrak izan ziran, baina gehienak beste autonomia erkidego batzuetakoak izan ziran, batez be Kataluniakoak (19.123), Madrilgoak (15.286) eta Andaluziakoak (11.812). Bizkaiko Batzar Nagusiak euskal herritarren artean be erakargarriak dira, ia 30.000 sarrera lurralde historikoetakoak izan ziralako. Esan daiteke urte horretan Bizkaia bisitatu eben hamar turistetatik bat (1.613.185 sarrera, Bizkaiko Aldundiaren Turismo Behatokiaren arabera) Gernikako Batzar Etxera joan zala, eta horrek gure Batzar Nagusien egoitzak jentea erakarteko daukan ahalmen handia erakusten dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

LA CASA DE JUNTAS DE GERNIKA ESTRENA UN SISTEMA DIGITAL DE ENTRADAS GRATUITO PARA REGULAR LAS VISITAS Y CONTROLAR EL AFORO

- Las personas que quieran conocer el interior de la sede parlamentaria foral tendrán que obtener una entrada digital en la web institucional jjggbizkaia.eus o en un tótem instalado a la entrada del Parlamento de Bizkaia.
- A partir de hoy lunes se pueden hacer ya las reservas online, y mañana martes, 20 de julio, será obligatorio tener entrada para acceder a la Casa de Juntas de Gernika.
- Conocer las dependencias de la Cámara foral seguirá siendo gratuito, si bien la zona ajardinada se podrá visitar sin dicho ticket.
- La pandemia y las medidas sanitarias habían obligado hasta ahora a cerrar los espacios interiores de la Casa de Juntas, no así la zona exterior en la que se ubica el Árbol de Gernika.

(Gernika, a 19 de julio de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia han instalado un sistema de control de acceso online para visitar la Casa de Juntas de Gernika. Desde hoy lunes se pueden hacer las reservas online. Quienes decidan visitar la sede parlamentaria a partir de mañana mismo tendrán previamente que obtener, sin coste alguno, una entrada online con código QR, que le dará acceso a las estancias de la Casa de Juntas de mayor interés. El objetivo es ordenar el flujo de personas y limitar el aforo en el interior de las dependencias forales, uno de los conjuntos arquitectónicos más visitados del territorio.

El nuevo sistema electrónico de acceso controlará el tiempo y las personas que accedan al Parlamento de Bizkaia. Los visitantes tendrán un máximo de 45 minutos para realizar la visita. Asimismo, habrá un límite de aforo de 22 personas por hora y un recorrido unidireccional ordenará el flujo de personas en el interior de las dependencias forales; un recorrido que comienza en el salón de plenos y finaliza en el Árbol de Gernika, tras pasar por otras instalaciones de la Cámara (Sala de la Vidriera, biblioteca, despacho presidencial...).

El sistema de *ticketing* ha sido presentado esta mañana por la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Otadui, quien ha destacado que la pandemia ha obligado a cerrar algunas estancias forales por motivos sanitarios, tiempo que ha servido para diseñar, confeccionar e instalar una fórmula de acceso que *“nos va a permitir tener un mayor control de las personas que se acercan a conocer uno de los rincones más visitados de Bizkaia. Es*



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

el tercer recinto histórico-cultural más visitado de Bizkaia por detrás de los museos Guggenheim y Bellas Artes. Para los visitantes supondrá un plus de comodidad y seguridad.”

El ticket de entrada se podrá adquirir a través de la página web de las Juntas Generales (<https://jjgbizkaia.eus/es/gernika/solicitar-cita>) en un apartado destacado de la “home” o en un tótem ubicado en la misma entrada del edificio foral. En el interior de la Casa de Juntas se han instalado también paneles informativos y distintos códigos QR con explicaciones detalladas de las distintas salas y elementos patrimoniales, que se podrán consultar en cinco idiomas (euskera, castellano, inglés, francés y alemán).

El sistema permitirá al visitante elegir el día y la hora para acercarse a Gernika, tras introducir una serie de datos personales que serán tratados como establece la Ley de Protección de Datos. Las personas que posean una entrada, individual o de grupo, bien impresa en papel o descargada en un dispositivo móvil, tendrán que acudir a la cita en los primeros 15 minutos de la hora elegida si quieren acceder. Si no se acude, la entrada se liberará para que pueda entrar otra persona.

La Casa de Juntas de Gernika es uno de los edificios más visitados de Bizkaia. En 2019, último año con registro completo, la sede que ofrece cobijo al símbolo de la democracia y las libertades vascas, el Árbol de Gernika, fue visitada por 162.675 personas, lo que representó un alza del 7,2% con respecto al año anterior. Un tercio de sus visitantes fueron extranjeros, aunque la mayoría procedieron de otras comunidades autónomas, principalmente de Catalunya (19.123), Madrid (15.286) y Andalucía (11.812). El Parlamento de Bizkaia tiene tirón también entre la ciudadanía vasca, ya que casi 30.000 entradas procedían de los territorios históricos. Se puede decir que uno de cada diez turistas que visitó Bizkaia ese año (1.613.185 entradas, según el Observatorio de Turismo de la Diputación de Bizkaia) acudió a la Casa de Juntas de Gernika, lo que refleja el gran poder de atracción de nuestra sede parlamentaria.